



Lagun maiteak:

JOSE LUIS de la MATAren heriotzaren/bizitzaren **XX. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskergaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekutzat dugu; siste-matizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATA**ENEAn egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 22an, igandean, goizeko 11etan**.

2025-26ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeke Donostiako **Izargain-DelaMata**ren Eskolan astero garatzen ari garen **www 18. Mintegiarekin**. Jose Luisek sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsa modelo etikoa eta iraultzailea da gure lanbiderako, osasun-tekniko gisa; eta eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak zaintzeko bete-betean indarrean jarraitzen du.

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurtan berriro ere, antzerkiaz gozatzen eramango gaitu. Guztion artean, Federico García Lorca-ren **La casa de Bernarda Alba** antzeztuko dugu. Oroimena aldarrikatu nahi dugu, Lorca-ren lana eta bizitza aitortuz, haren hilketaren 90. urteurrenean.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu (bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali ulumago@hotmail.com helbidera, **otsailaren 19a** baino lehen, mesedez).

Areson zuen zain gaituzue... Etorri!
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso
DE LA MATAENEA
2026ko otsailan

